



Txapela buruan eta ibili munduan

Bizirik irauteko eskuliburua

Interinoak Nafarroan

Interinitatearen negazionismoa eta negozionismoa

Ordezko gaien kudeaketarako gure proposamenak

Hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia

EPEak 2024

Zerrenden kudeaketa araudia

Lanpostuen Esleipen Telematikoa

Zerrendatik kanpo geratzeko arrazoiak

Berriazko profilen akreditazioa

Esteka interesgarriak



www.steilas.eus

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea

31014 Iruñea

☎ 948 21 23 55 • nafarroa@steilas.eus



Txosten hau irakurri ondoren,
ez baduzu erabiliko, zure
ikastetxeko oholean jarri edo
interesa izan dezaketen lankideei
helarazi.

Berrerabili!



Nafarroako irakasleen interinitatearen negazionismoa eta negozionismoa

Zerbitzu publikoetako interinitate tasa handia ez da kasualitatea; ahuldu nahi dituzten eta enpresa pribatuen negozioa handitzen duten politiken ondorio da. Hezkuntzaren kasuan, ikastetxe pribatuak ziurtatuta dute beren finantzaketa, itunen bidez; aldiz, gobernuek aplikatutako murrizketen mende daude ikastetxe publikoak. Horretarako, ezinbestekoa da plantilla publikoetan aldi baterako irakasleen ehuneko handi bat kaleratua izatea ikasturte bakoitzeko urteko kontratua bukatutakoan.

Kontuen Ganberaren datuen arabera, Nafarroako hezkuntza publikoko irakasleen bitartekotasuna % 52koa izan zen 2021ean, azken datu ezaguna. Hezkuntza Departamentuak bi interinitate mota bereizten ditu: egiturazko lanpostuei dagokiena eta koiunturala deritzona. Azken horrekin deskribatzen dira ustez ikasturte bakoitzeko premia aldakorren mende dauden lanpostuak. Departamentuak ziurtatu duenez, egonkortze prozesuaren ondoren, egiturazko bitartekotasuna % 8tik jaitsiko da gatzelaniaz eta euskaraz, eta PAI lanpostuetan baizik ez da handiagoa izanen.

Europar Batasunak ezartzen du behin-behinekotasuna ezin dela % 8tik gorakoa izan, bereizketarik egin gabe egiturazko eta koiunturazko interinitateen artean, koiunturala % 8 horretan sartuko litzatekeelako. Engainua datza egiturazkoari

buruz bakarrik hitz egitean, kontuan hartu gabe etengabe dirauela koiunturazkoak, egiturazkoa dela argi eta garbi adierazten baitu. Gainera, egiturazko lanpostuak definitzen dira sindikatuekin inoiz negoziatzen ez diren irizpide ilunen arabera.

Bestalde, irakasle interinoek oposizioetan parte hartu behar dute, ez funtzionario lanpostu bat lortzeko, baizik eta kontratazio zerrendetan jarraitzeko. Oposizioak negozio handi bat dira, oinarritzen dena funtzionario lanpostu baterako izangai asko izatean. Izangaiek ikastaroak egin behar dituzte, akademiara edo prestatzaileetara joan, jakinik horietako askok beltzean kontratzen dutela, eta programazioekin trafikatzan, besteak beste.

Guzti honi, PAI legea gehitu behar diogu. Lege berriarekin funtzionariatzatuko direnak betiko geldituko dira ingeleseko profileko destino batean eta bakarrik parte hartuko dute Nafarroako leku aldatze lehiaketa mugatuetan. Egun ezin dute lortu estatu mailako funtzionarioak izaterik. Era berean, kontratazio-zerrenda berriak sortuko dira (adibidez, lehen hezkuntzan, non 2 zerrenda zeuden –eusk, gatz–, 6 edo 8 zerrenda izatera pasa ahalko dira –PAI, PAID, PALE, PAF, eusk, gatz–, eta lehentasuna emanen zaie atzerriko hizkuntzan hizkuntza-eskakizuna duten zerrendei, gainerakoen gainetik.

Egoera horren aurrean, **STEILAS**ek borroka egiten du interinitatearen gaitza desagertzeko eta irakasle guztiak benetan egonkortzeko, bai eta ikastetxe publikoetan gaur egun pribatizata dauden zerbitzuak publiko bihurtzeko ere: jantokiak, garbiketa eta garraioa.

oposiziora aurkezteko beharrik gabe, plaza murriztuak edo osoak hautatzeko aukera izatea, eta Nafarroako zonalde desberdinetan lan egitea aukeratu ahal izatea, beren prestutasunaren arabera.

Azkenik, honakoak ere proposatzen ditugu: irakasleek urtero barematu ahal izatea, derrigorrez

Ordezko gaien kudeaketarako gure proposamenak

Oposizioak eta kontratazio zerrenda bereiztea

- Oposizioak behin betiko lanpostuetara bakarrik iristeko prozedura izatea. Gainerako beharretarako (ordezkapenak, baimenak, lizentziak...) kontratatuen zerrenda barematuak edukitzea.
- Oposizio frogak gainditzeagatik puntuak lortzea pertsona kontratatuen zerrendan.

Zerrenda irekia

- Izangaiek izena emateko aukera izatea ikasketak bukatutakoan eta urte osoan irekiak.

Gaurkotzea

- Urtero birbarematzea kontratazio zerrenda.
- Izangai bakoitzak gehitutako merezimenduak eta esperientzia eranstea.
- Izangaien esperientzia guztia aintzat hartzea, toperik gabe.
- Pertsona zaurgarrienak (adinagatik, eritasunagatik, lana eta familia bateratzeagatik...) gehiago babestea.

Integrazioa

- Zerrenda bateratu bakarra egotea.
- Izangai bakoitzak bere espezialitate, hizkuntza eta profil guztiak modurik bidezkoenean erabiltzea.
- Nafarroa zonaldean banatzea eta izangai bakoitzak bere lehentasunak adieraztea.

STEILASen, hizkuntza eta habilitazio edo espezialitate guztiak kontuan hartuko dituen Kidego bakoitzeko zerrenda integratu bakarraren aldeko apustua egiten dugu.

Hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia

(37/2020, 46/2020 eta 36/2022 Foru Aginduak eta 39/2023 Foru Dekretua)

Ikastetxe Publikoetan lan egiteko, Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen hautagaien zerrendetan egon behar duzu.



Zerrendetan sartzeko bete beharreko baldintzak

Kontratatorako zerrendetan sartzeko hurrengo baldintza orokorrak bete behar dira:

- Estatu espainiarraren NANA edukitzea, Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko herritarra izatea, edo herritartasun hori duen pertsona batekin ezkondu izana eta baita bere aurreko eta ondorengo ahaideek ere.
- Erabateko ezintasun iraunkorraren edo baliezintasun handiaren egoera deklaratu ez egotea, eta irakaslanarekin bateraezina den eritasunik edo eragozpen fisiko zein psikikorik ez izatea.
- Edozein Administrazio Publikoren zerbitzutik kanpo uzten zaituen diziplina-espediterik eduki ez izana edo irakaskuntza lanak egiteko desgaitasuna jaso ez izana.
- 2016-2017 ikasturteaz geroztik, bai ezohiko deialdietarako, bai Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zerrendetan sartzeko (zerrenden irekieraren bidez edo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez) beharrezkoa den antzinako ILZ edo egungo Bigarren Hezkuntzako Masterra izatea.
- Askatasun edo identitate sexualen kontrako delituren batengatik sententzia irmo bidez kondenatuta ez izana.
- Kontratazio singularretan (ostegunetan izaten direnak), zerrendako hautagai guztiak "ez prest" daudenean, aurreko baldintza guztiak betetzen ez duen pertsona bati esleitu ahal zaio lanpostu bat. Kasu honetan, pertsona hori ez da kontratazio zerrendan sartuko kontratua bukatzean.

Lan baldintza orokorrak



Abuztuaren 30eko, 251/ 1993 Foru Dekretu Legegilea, Nafarroako Administrazio Publikoko langileen Estatutu moldatua onartzen duena.

Oinarrizko araudia



37/2020 Foru Agindua, apirilaren 8koa, kontratatuen zerrenden kudeaketa arautzen duena.



I. eranskina.
Especialitate bakoitzerako beharrezko titulazioa.

Zerrenden irekiera web orria



Beharrezkoa online kudeaketarako

Cl@ve.
Lortzeko
hemen klik



Hezkuntzako zerrendetan hurrenkera:

- 1 Oposizioa gainditu eta plaza gabe geratuak.
- 2 Aurkeztu eta 0,1 baino gehiago atera dutenak.
- 3 Aurreko ikasturtean kontratua izan dutenak.
- 4 Salbuespenezko zerrenda irekiera bidezkoak.
- 5 NEZen zerrenda bidez sartuak.
- 6 Kontratazio bereziak.

EPEak 2024

Egonkortzea

Lehiaketa fasea % 40	Lan esperientzia	Gehienez 7 p	I eranskina
	Prestakuntza akademikoa	Gehienez 2 p	
	Beste merezimendu batzuk	Gehienez 1 p	

Oposizio fasea % 60

A zatia - % 40

Ausaz aukeratutako idatzizko **gai baten garapena.**

≤50 gai = 4 bola
>51 gai = 5 bola

Gaitegia IV.eranskinean

- BH eta LHko irakasle teknikoak.
- Musika eta arte eszenikoetako katedradunak.
- Arte plastikoak eta diseinua.
- Magisteritzako espezialitateak, BH, HEO.
- Lehen Hezkuntza.

B zatia - % 60

B.1. % 50

Unitate didaktiko bat prestatu, aurkeztu, azaldu eta defendatu (helburuak, edukiak, jarduerak, ebaluazioa).

Ebaluazio irizpideak V. eranskinean:

- 20 min prestatzeko.
- 45 min defentsarako.
- 15 min galderak.

Lanbide Heziketa eta BHIko kidegoetan UDa **lan unitateei** buruzkoa izan daiteke.

Hezkuntza Orientazioko eta Komunitatearentzako Zerbitzuetakoan, ikastetxe bateko **esku hartze programa** garatu daiteke.

Material osagarria erabili daiteke. UDaren azalpenean gidoi bat ere bai, gehienez bi orrialdekoa.

B.2. % 50

Ariketa praktikoa.

VI. eranskinean zehazten diren espezialitateek soilik.

Bi zati hauek ez dira baztergarriak izanen.

Oposizio fasearen puntuazio osoa A eta B zatien batura izango da.

PAI lanpostuak egonkortasuna



Klikatu

Plaza arruntak egonkortasuna



Klikatu

EZ PAI: hautaprobak hizkuntza-espezialitateei edo espezialitatea emango den **hizkuntzari** dagokion hizkuntzan egingo dira.

PAI: maiatzaren 4ko 11/2022 Foru Legeak dioen moduan, atzerriko hizkuntza-aren eskakizuna duten lanpostuetara sartzeko hautapen probak lanpostu horiei dagokien hizkuntzan egingen dira, hots, gaztelaniaz edo euskaraz.

Birjartzea

Lehiaketa fasea % 33,3	Merituak Gehienez 10 puntu
	Aurretiko irakaskuntza-esperientzia. Gehienez 5p.
	Prestakuntza akademikoa. Gehienez 5p.
	Beste batzuk. Gehienez 2p.

Oposizio-aldia % 66,66

Lehenengo proba
Gehienez 5 puntu

A. Proba praktikoa. 2o. % 50 (gutxienez 2,5). III. eranskina.

B. Gai teorikoa. 2o. % 50 (gutxienez 2,5). II. eranskina. 2 bolatxo.

Bigarren proba
Gehienez 5 puntu

A. Programazio didaktikoa. % 30 (gutxienez 2,5). V. eranskina.

B. Unitate didaktikoa. % 70 (gutxienez 2,5). V. eranskina. 3 bolatxo.

Hautapen proba guztiak hizkuntza espezialitateei edo espezialitatea emango den hizkuntzari dagokion hizkuntzan egingo dira.

EPE birjartzea



Klikatu



Zerrenden kudeaketa araudia

Apirilaren 8ko 37/2020 FA

ADI!

2024-2025 ikasturtean zenbait zerrendetan aldaketak egonen dira!

stellas

Zerrenda motak	Betebeharrak	Puntuazioa/hurrenkera	Indarrean noiz arte	Oharrak
1. Funtzionario plaza lortu ez duten LEP aprobatauak	Dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntza oposizio aldia gainditu izana, funtzionario plazarik lortu gabe.	Oposizio eta lehiaketa faseen batuketa haztatu (ponderatua).	Zerrendak berregin arte.	Hiru plazetatik lehena % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten zerrenda honetako pertsonentzat izanen da.
2. Kontrataziorako izangaien zerrenda orokorra	<p>a) Azken oposizioaldira aurkeztuak dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntza eta baldintza hauek betez:</p> <ol style="list-style-type: none"> Lehenengo ariketara aurkeztu izana. Oposizio fasean puntuazio positiboa lortu izana +0. Espezializatean eskatzen den titulazioa izatea (I. Eranskina). Ez da beharrezkoa izanen lehendik zerrendan zeudenentzat. Irakaskuntzarako edo espezialitaterako gaitasun faltagatik aurretik kanporatua ez izatea. Ariketa praktikoa gainditu izana zerrendetan mantentzeko beharrezkoa den espezialitateetan. 	<p>II. Eranskina</p> <ol style="list-style-type: none"> Aurretiko esperientzia irakaskuntza (10 puntu max.). Formakuntza akademikoa (5 puntu max.). Bestelako meritua (2 puntu max.). Oposizio fasearen emaitza (oposizio fasearen emaitzen batezbesteko aritmetikoa). 	Hurrengo oposizio edo zerrendak berregin arte.	<p>Bi atal hauen arteko berdinketarik egongo balitz, honela ebaztuko lirateke:</p> <ol style="list-style-type: none"> Merezimendu baremoan puntuaziorik altuena, II. Eranskinean agertzen diren ordenean. Merezimendu baremoko azpi ataletan puntuaziorik altuena, II. Eranskinean agertzen diren ordenean. Lehenengo abizenaren arabera alfabetikoki ordenatua (beharrezkoa bada, bigarrenarena), egindako letren azken zozketaren arabera.
	<p>b) Aurreko oposizioan funtzionario plaza lortu ez zutenak edo zerrenda orokorrean sartu zirenak eta baldintza hauek betez:</p> <ol style="list-style-type: none"> Edozein kidego, espezialitate eta hizkuntzatan lehen ariketan aurkeztu izana 2019ko urtarriletik aurrera ospatutako LEPetan. Oposizio fasean puntuazio positiboa ateratu izana +0. 	<p>II. Eranskina (Gaineko informazioan dagoen baremo berbera).</p> <p>2021eko LEPetik aurrera, espezialitate batera aurkeztuz gero, irakaskuntza lan esperientzia barematuko da jada dagoen gainerako zerrendetan.</p>		
	<p>c) Oposizioa deitzen den espezialitatean, ikasturte berean kidego, espezialitate eta hizkuntza horretan gutxienez kontratu bat izan duten pertsonak, eta zerrenda orokorrean egoteko behar diren titulu eskakizunak betetzen dituztenak.</p>	Aurreko atalen atzean eta jatorrizko zerrendetan zeuden ordenean, baina puntuaziorik gabe.		
	<p>Zerrenda orokorrera gehituko dira (titulu eskakizunak beteta):</p> <ul style="list-style-type: none"> Berriazko zerrendetatik. Kontratazio deialdi berezien bidez sartuak. Kontratu eskaintza bat onartzean. Web deialdian kontratu bat onartuta. Antzeko zerrendetatik kontratatuak. 	Puntuaziorik gabe eta bertan daudenen atzean, zerrenda horretan sartzearen data, ordua, minutu eta segunduaren arabera. Eta berdinketa egotekotan, kontratua egin zieten zerrendan zeuden ordenaren arabera.		

Zerrenda orokorraren berrantolamendua: azken bi urteotan oposizioa deialdirik egon ez den espezialitatean eta hizkuntzetan, indarrean dagoen baremoa ezarriko da. 2019ko urtarrilaren 1a ondotik izanen diren oposizioetan, kontrakoa adierazten ez bada, Departamentuak ofizios 2012tik azken 3 oposizio deialdietan ateratako puntuaziorik altuena gordeko du (beti ere kidego, espezialitate eta hizkuntza berean).

Zerrenda motak	Betebeharrak	Puntuazioa/hurrenkera	Indarrean noiz arte	Oharrak
3. Berariazko zerrendak (irekiera edo proba bidez sartuak)	a) Zerrenden irekiera bidez: Eskari orria aurkeztuz eta kidego, espezialitate eta hizkuntza (behar izanez gero profila ere) horretarako betebeharrak egiaztatuz.	Eskatutako tituluaren batezbesteko emaitza. Berdinketa egotekotan, istantzia aurkezpenaren ordenaren arabera ebatziko da.	<ul style="list-style-type: none"> • Dagokion kidegoan, espezialitatean eta hizkuntzan sartzeko beste deialdi bat ebatzi arte. • Berariazko zerrendan sartzeko proba egitea eskatzen den zerrendetan, espezialitate horretan aurretik proba gabe osatu ziren zerrendak baliogabetuko ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Urtean bi aldiz behintzat irekiko dira zerrendak, eta ikasturtean zehar espezialitate guztiak irekitzea bermatuko da. • Deialdia argitaratu ondoren, izena emateko 20 egun naturaleko epea egonen da. Behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren, 10 lan eguneko epea egongo da erreklamatzeko. Honen ondoren behin betiko zerrendak argitaratuko dira.
	b) Proba deialdien bidez: Musika eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleentzat proba gainditzea eskatuko da. Lanbide Heziketa eta Arte Plastiko eta Diseinuko irakaskuntza profesioaletako espezialitateetan, aldiz, Zuzendaritza Nagusiaren informearen arabera.	Probaren guztizko emaitzaren arabera (10 puntu gehienez eta baztertzaila izanen da erdia gainditzen ez dutenentzat. Bi zati edo gehiago izanez gero, zati bakoitza izanen da baztertzaille). Berdinketa egotekotan, probaren guztizko emaitzaren arabera. Deialdi bat baino gehiago eginez gero, geroagokoan hautatuak izan direnak, zerrendan zeudenen atzetik txertatuko dira.		
4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (NEZ) bidez hautatutako izangaiak	Zerrendetan izangairik ez dagoenean, Departamentuak eskakizunak betetzen dituzten lan-eskatzailak gehituko ditu.	Nafarroako enplegu zerbitzuak bidalitako zerrendan ezarritako hurrenkera berean	NEZek zerrenda berriak osatu arte (gehienez 3 urte).	
5. 2019/2020 ikasturtean kontratatutako eta eskakizunen bat betetzen ez duten pertsonen zerrenda	2019-2020 ikasturtean aldi baterako kontratu administratiboa sinatu izana, eta 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinean ezarritako baldintzak ez betetzea.	Zerrendan ordenatuko dira kontratatua izan zen unearen arabera.	Zerrenda iragankorra izango da, 2020/2021 eta 2021/2022 ikasturteetan bakarrik indarrean egonez.	Zerrenda honen bidez kontratatutako pertsonak ez dira zerrenda orokorrera pasatuko masterra entregatu arren. 46/2020 FA, maiatzaren 16koa.
6. Kontratazio deialdi bereziak	Beharragatik eta zerrendetan inor ez dutenean kontratu bereziak eginen dira bete behar den lanpostuari hobekien egokitzen zaion pertsonari eskainiz, aurretik honako prozedura jarraiki, beti ere: <ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeko zuzendaritzaren txostena lanpostua lehen bait lehen betetzearen garrantzia eta beharra azalduz. - Departamentuko atalaren txostena zerrenden agortzea azalduz eta justifikatuz. - Dagokion atalaren idatzizko baimena, kontratazio bereziari bide emanen diona. 			

Zerrenda orokorrean sartuta

Eman beharreko pausoak

1. Kontratazio zerrendetan sartu

Kontratazio zerrendetan sartzeko bide ezberdinak daude:

Oposizio prozesuan parte hartzea

Oposizio deialdi bat argitaratzen denean, izena eman, programazioa aurkeztu eta lehenengo azterketan nota positiboa atera (>0,1).

Berariazko zerrenden irekieran izena ematea



Ikasturte osoan zehar zerrendak irekitzen dituzte eta bertan izena eman.

Ezohiko deialdian parte hartzea



Ostegunetan, 14:00etan, lanpostuak esleitzeko ezohiko deialdiak izaten dira, non zerrendetan sartuta ez dauden pertsonak parte hartu dezakete. Bide honetatik kontratu bat lortzen dutenek, kontratazio zerrenda orokorrean sartzen dira (betiere zerrendetan egoteko baldintza guztiak betetzen badira).



2. LET-ean parte hartu (ATP)

Ekainan eta/edo abuztuan, hurrengo ikasturterako LETak izaten dira (Esleipen ma-siboak), bertan ikasturte osorako lanpostu bakanteak eskaintzen dira, baita ordezkapenen bat ere.

Ikasturtea hasita, lanpostuen esleipenen parte hartzea asteleheneretan, asteartetan, asteazkenetan eta ostiraletan ordu 2tan irekitzen da, eta hurrengo egunean 8:30tan ixten da (ostiralekoa astelehenera ixten da).

Bi parte hartze mota:

Derrigorrezkoa: Parte hartze derrigorrezkoa izanik parte hartzen ez duena, zerrenda guztietan "ez prest" egoerara pasako da eta ezingo du ondorengo LETetan parte hartu. Instanzia bidez eskatu daiteke berriro "prest" egoerara pasatzea, ikasturte osoan behin.

Borondatezkoa: Parte hartze borondatezkoa izanik, ez da zertan parte hartu behar, baina aurrekoek parte hartzen ez badute, lanpostu bat iritsi ahal zaio zerrendan atzerago dagoenari, betiere parte hartu badu.



Parte hartzeko web fitxan bertan esleitutako lanpostuak kontsultatu daitezke parte hartzea itxi eta denbora gutxira (deialdi ebatziak).

Lanpostuen Esleipen Telematika (LET)

Parte hartzea

EDUCA sarbidea (aurretik Nafarroan lan egin baduzue).

Cl@ve.

NAN digitala edo Ziurtagiri Digitala.

Eskeinitako plaza ez hartzea erabakitzen badut

Jardunaldi erdia edo gehiagokoa (% 80 baino gehiagokoa deialdi masiboetan):

Ikasturtean behin, derrigorrezkoa den kontratua ez hartzeko aukera izango duzu. Egoera horretan "ez prest" egotera pasako zara zerrenda guztietan, baina ez zaituzte zerrendatik botako. Hartu ez duzun kontratuaren hasiera egunetik aurrera "prest" egotea eska dezakezu Hezkuntza Departamentura zuzendutako instantzia baten bidez. Administrazioak erantzuteko 10 egun izango ditu. Derrigorrezko parte hartzea izanik, bigarren aldiz parte hartzeari uko egiten badiozu "ez prest" egoerara pasako zara zerrenda guztietan ikasturtea bukatu arte.

Jardunaldi erdiko baino gutxiagoko kontratuak, lanpostu ibiltariak, lanpostu mistoak antzeko espezialitatearekin edo/eta ez dituzun profilekin edo berariazko titulazioekin, edo espetzeko lanpostuak:

Penalizatorik gabe ez hartzeko aukera dago. Zerrendetan duzun posizioa ez da aldatuko.

Kontratu baten etetea edo esleitutako lanpostu bati uko egitea

Behin kontratu bat hartuta, uko egiteak zerrenda guztietatik kanporatua izatea ekar dezake. 37/2020 F.A. 17. Art.

Kanporatzea kontratua duzun zerrendatik (lanean zauden zerrendatik)

15 eguneko aurreabisuarekin uko egiteagatik, probaldiko kontratua deuseztatzeagatik, gaitasun edo moldatze ezagatik.

Kanporatzea zerrenda guztietatik

Ez sinatzea onartutako kontratua, uko egitea 15 eguneko aurreabisirik gabe, irakaslea izateko gaitasunik ez izatea, funtzionario izendatzea, jubilazioa edo exijitutako eskakizunak ez betetzea.

Kontuan hartzeko

- Ordezkapen kontratua bukatu ondoren, 20 egun baino lehen pertsona bera ordezkatzeko beharra sortzen bada, lanpostu horretan egon denari eskainiko zaio, kontratu berri bat sinatu ez badu.
- Izangai batek kontratu partziala badu eta ikastetxean behar berri bat sortzen bada, berari eskainiko zaio.
- **Erditze, adopzio, harrera eta gurasotasun baimenetan:** Baimena bukatzean lanpostura bueltatzeko eskubidea. Behin bukatuta ez bazara itzultzen errenuntzia justifikatutzat hartuko da eta zerrendan zure postua mantenduko duzu.

Parte hartzea

Zer gertatzen da bajaran banago?

LETean plaza bat har dezakezu, baina kontratua hasten den egunean altan egon beharko duzu.

Bajaran bazaude, kontratu hori galduko duzu, eta behin alta entregatzen baduzu, prest egongo zara LETean berriro parte hartzeko.

Perfil eta "con horas" en arteko diferentzia:

Profila: lanpostua hartzeko eskatzen den profila eduki behar duzu.

"Con horas": ez duzu profilik behar.

* Perfil formación en línea: Perfil hau eskuratzeko erakunde ofizialen batek antolatutako formakuntza egin behar da, gutxienez 45 ordu.

Zer gertatzen da eszedentzia berezian banago?

LETean plaza bat har dezakezu. Instantzia orokor baten bitartez kontratua hasten den egunetik aurrera eszedentzia bereziarekin jarraitzea eska dezakezu.

Zerrendatik kanpo geratzeko arrazoiak

Ordezko gai bat zerrendetatik kanporatzera eraman dezaketen arrazoiak oso anitzak dira, baina bi taldetan bana ditzakegu.

1. Lanean hasi baino lehen zerrendetatik kanporatzera eraman dezaketen arrazoiak:

- **Kontratu bati uko egitea LETen hartu ondoren** (gutxienez 15 egun natural lehenago abisatzen ez bada).
- **Departamentuarekin sinatutako kontratua bertan behera uztea edo lanpostua uztea** (gutxienez 15 egun natural lehenago abisatzen ez bada).

2. Lanean dabilen interino bat zerrendetatik kanporatzeko arrazoiak honako hauek dira:

- **Administrazioak kontratua bertan behera uztea** ikastetxeko zuzendaritzak interinoaren inguruko kontrako txostena egiten duenean.
- **Gaitasun faltaren edo bete beharreko lanpostura ez moldatzearen ondoriozko arrazoiengatik edozein kidego, espezialitate edota hizkuntzarako lan-kontratua deuseztatzea.**
- Hezkuntza administrazioek deitutako irakasle kidegotan sartzeko hautapen prozedura batean **praktiketako funtzionario edo karrerako funtzionario izendatua egotea**. Kasu horretan, ordezko gaia izendatu duteneko mailako edo beheragoko kidego bati dagozkion zerrenda guztietatik baztertuko da.
- **Erretiroa hartzeko adina betetzea**. Erretiratzeko adina izanik zerbitzuan jarraitu nahi dutenek urteko luzapen eskaera aurkeztu beharko dute Giza Baliabideen Zerbitzuan, betiere ordezko gaiak hirurogeita hamar urte bete ez baditu.



Uda kobratzea. Ikasturte bakoitzean irailaren 1etik ekainaren 30era bitarte 165 egun natural baino gehiago lanean ematen dituzten irakasle kontratatuek, beste kontratu baterako eskubidea sortuko dute, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartekoa, biak barne. Kontratu berriak ikasturtean zehar izandako iraupen luzeeneko kontratuaren ezaugarri eta baldintza berberak izango ditu.

Kontratu berria izateko beharrezkoa izango da ikasturte bukaeran prest egoeran egotea.

**Betetzeko zailak diren lanpostuak dituzten ikastetxeak
(lanpostua 3 urtez gordeko da beharra mantentzen den bitartean)***

ADI! Betetzeko zaila den lanpostu bat baldin baduzu eta ez baduzu LETean parte hartzen, maiatzean uko egin ez baduzu, zerrenda guztietatik kanporatua izango zara

HH, LH eta DBHletan	Auritz, Aurizberri, Erro, Erronkari, Garralda, Otsagabia, Luzaide, Zugarramurdi.
Irakaskuntza Ertainak	Arantza, Betelu, Goizueta, Urdazubi-Zugarramurdi.
Bost unitate edo gutxiagoko landa-eskolak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskualdea. Baztan: Almandoz, Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilikueta, Erratzu, Gartzain, Irurita, Lekaroz, Oronoz, Ziga, Zugarramurdi. 2. Eskualdea. Malerreka: Ituren, Legasa, Narbarte, Saldias. 3. Eskualdea. Areso, Jauntsarats. 4. Eskualdea. Bortzirriak: Igantzi. 5. Eskualdea. Erronkari: Erronkari. 6. Eskualdea. Otsagabia: Otsagabia. 7. Eskualdea. Aezkoa: Auritz, Auzperri, Erro, Garralda, Luzaide. 8. Eskualdea. Sakana: Iturmendi, Urdiain, Zudaire. 9. Eskualdea. Zangotza: Aibar, Caseda, Monreal, Lumbier, Urroz. 10. Eskualdea. Tafalla: Añorbe, Beire, Berbinzana, Obanos, Pitillas, Ujue. 11. Eskualdea. Fontellas, Melida, Monteagudo, Murillo el Fruto, Rada, Santa Cara. 12. Eskualdea. Antzin, Arroniz, Deikaztelu, Oteitza.

Betetzeko zailak diren postuetan aldaketak (39/2023 F.D eta 37/2014 F.D.)

Araubide orokorra	23/24 ikasturtean 3 urteko epearen barruan daudenek, eta lanpostua betetzeko zaila den espezialitatean eta hizkuntzan lanpostu gehiagorik ez badago, beste zerrendaren batean badaude, zerrenda horietan edozein lanpostu aukeratu ahal izango dute lanpostuen esleipen masiboaren aurretik. Beste zerrenda batean ez badaude, betetzeko zailak diren lanpostuen antzeko espezialitateko zerrendetan aukeratu ahal izango dute, esleipena egin aurretik.
Araubide trantsitorioa	22/23tik aurrera sartzen diren irakasleek 3 urteko iraupeneko kontratua izango dute gehienez (iraupena murriztuko da lanpostu hori funtzionario batek okupatzen badu, ikastetxean beharra desagertzen bada, jardunaldi erdia baino gutxiagokoa izatera pasatzen bada, ibiltaria bada edo trebetasun instrumental espezifikoak baditu).

Berariazko profilen akreditazioa

- Bai funtzionarioentzat, bai zerrendetan dauden pertsonentzat (32/2013 Foru Agindua).
- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - Eskabide-orria: (ez da beharrezkoa aurkezpen telematikoa egiteko).
 - Betekizunen fotokopia soila.
- Irekita urte osoan. Hona hemen **ebazteko epeak**:
 - 09/01 eta 12/31 bitartean aurkeztuak: urtarrilaren 1. hamabostaldia.
 - 01/01 eta 04/30 bitartean aurkeztuak: maiatzaren 1. hamabostaldia.
 - 05/01 eta 08/31 bitartean aurkeztuak: irailaren 1. hamabostaldia.
- Ofiziozko profila, espezialitatearen titularra bazara edo zerrendetan agertzen bazara.
- Ezabatzea: edozein unetan eskatu ahal izango da, baina ezin izango da berriro eskatu 2 ikasturte igaro arte. Hizkuntza-eskakizuna eskatzen duten zerrendetan sartu bada, baztertu egingo dira kentzea eskatzen badute.


Perfilen akreditazioa



Tramitaziorako gida



EXIT: ZERRENDEN KUDEAKETAN GALDUAK



Departamentuaren kudeaketa

- Sarrera korapilatua eta berezia.
- Prekarizazioa eta estresa: oposizioen mendeko zerrendak.
- Hizkuntzaren eta profilaren araberako zerrenda bereziak (gaztelania, euskara, gazt/ing, eus/ing, gazt/fra, gazt/ale).
- Ordezkapenak betetzeko zailtasunak.
- Zerrenden irekitze arbitrarioa.
- Zerrenda fosilak.
- Esperientziaren puntuazio baztertzailea.
- % 50eko interinitate-tasa.
- Apartheid linguistikoa areagotzea (hipersegregazioa).

STEILASen proposamena

- Oposizio eta zerrendak bereiztea.
- Baremoan puntu gehiago oposizioak gainditzean.
- Zerrenda bakarra eta integratua.
- Espezialitateen, hizkuntzen eta profilen kudeaketa bateratua.
- Hautagaien aukerak errespetatzea (zonaldea, jardunaldia).
- Zerrendak etengabe irekiak eta urtero birbarematzea.
- Kontziliazioa erraztea.
- Irakasle kontratatuen babes handiagoa.